

DEKRETUA

COVID-19ak eragindako alarma egoeraren testuinguruan, 2020ko apirilaren 28an, Ministroen Kontseiluak Normalitate berrirako trantsizio plana onartu zuen, eta plan haren bidez, normaltasuna lortzeko parametro eta tresna nagusiak ezarri zituzten.

Plan haren arabera, terrazetan baimentzen zen gehieneko okupazioa aurreko urtean udal lizentziaren bidez baimendutakoaren erdia zen, eta mahaian artean gutxienez bi metroko tartea egotea bermatu behar zen. Hala ere, terrazara bideratutako azalera eta mahaian kopurua handitzeko aukera zegoen, % 50eko proportzioa zainduta mahaian eta erabilgarri dagoen azaleraren artean.

Gauzak horrela, eta ezohiko egoeran ginenez, Durangoko Udalak araubide juridiko berezi bat onartu zuen maiatzaren 11ko 2020/0900 Dekretuaren bidez: Durangoko ostalaritza- eta jatetxe-establezimenduetako aire zabaleko terrazen baimenentzako salbuespenezko eta aldi baterako araubide juridikoa, Bide publikoan terrazak eta mahaitxoak instalatzea arautzen duen udal ordenantzaren osagarria (Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2018ko otsailaren 9an argitaratua).

Araubide juridiko horren eraginez, terrazetako mahaiek okupatzen duten azalera publikoa handitu ahal izan da, horretarako salbuespenezko eta aldi baterako baimenen bidez. Azalera gehiago hartuta, pertsonen arteko segurtasun tartea zaindu da; eta, gainera, dekretuari esker, ostalaritza sektoreko zati batek, osasun krisiaren eragin latza jaso eta gero, jarduerari berrekin ahal izan dio gutxieneko bideragarritasun ekonomikoarekin.


DECRETO

En relación con el estado de alarma ocasionado por el COVID-19, el pasado 28 de abril de 2020 el Consejo de Ministros adoptó el Plan para la transición hacia una nueva normalidad que establece los principales parámetros e instrumentos para la consecución de la normalidad.

De acuerdo con dicho Plan, la ocupación máxima permitida a las terrazas se limitaba al cincuenta por ciento de las mesas permitidas en el año inmediatamente anterior en base a la correspondiente licencia municipal, asegurando la distancia física de al menos dos metros entre mesas. Si bien, permitía incrementar la superficie destinada a terraza e incrementar el número de mesas, respetando la proporción de cincuenta por ciento entre mesas y superficie disponible.

Debido a ello y a la situación de excepcionalidad, mediante Decreto nº2020/0900, de 11 de mayo, el Ayuntamiento de Durango aprobó el régimen jurídico excepcional y temporal de las autorizaciones de terrazas al aire libre de los establecimientos de hostelería y restauración del municipio de Durango, complementario a la Ordenanza municipal reguladora de la instalación de terrazas y veladores en la vía pública (Boletín Oficial de Bizkaia de 9 de febrero de 2018).

El régimen jurídico establecido ha supuesto en la práctica una ampliación de la superficie pública que ocupan las mesas, autorizada de manera excepcional y temporal. Dichas ampliaciones han facilitado mantener la distancia de seguridad interpersonal. También ha permitido que parte del sector de la hostelería, gravemente afectado por la crisis sanitaria, haya podido reanudar la actividad con una mínima viabilidad económica.



Aipatutako dekretuan baimen horiek COVID-19ak eragindako osasun krisiaren deseskalatze-faseetan irautea aurreikusi zuen; alarma egoerak iraun arteko epea ezarri zuen. Bada, 2020ko ekainaren 21ean amaitu zen alarma egoera –lehenengoz 463/2020 Dekretuaren bidez ezarri zena-. Ondorioz, terrazak aldi baterako handitu ahal izateko baimenen indarraldia amaitu egin zen.

Bestalde, EHAren 120. zenbakian Osasun sailburuaren 2020ko ekainaren 18ko Agindua argitaratu da, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko beharrezko prebentzio-neurriei buruzkoa, Normaltasun Berrirako Trantsizio Planaren 3. fasea amaitu eta gerorako. Agindu horren xedea da COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko prebentzio-neurriak ezartzea, krisialdia behin betiko amaitu arte.

Agindu horren Eranskinean daude jasota prebentziorako neurriak. Ostalaritzako establezimenduei dagozkien prebentzio neurrietan, edukiera muga kentzen da, baldin eta bermatzen bada 1,5 metroko distantzia egotea mahaien artean edo, hala badagokio, mahai-multzoen artean.

Osasun sailburuak 2020ko uztailaren 15ean beste agindu bat argitaratu zuen, eta haren bidez aldatu egin zuen 2020ko ekainaren 18ko Aginduaren eranskin hori –Ekainaren 18ko Agindua, COVID-19ak eragindako osasun krisialdiari aurre egiteko beharrezko prebentzio-neurriei buruzkoa, Normaltasun Berrirako Trantsizio Planaren 3. fasea amaitu eta gerorako-. Agindu berriak, ostalaritzako establezimenduen inguruan gehitzen du gehienez hamar pertsona egon ahalko direla mahaiko edo mahai-multzo bakoitzeko.

Aginduan ezarritako prebentzio neurriek COVID-19ak eragindako salbuespen-egoerari eustea dakarte. Zehazki, terrazetan jar daitezkeen mahaien


El Decreto fijaba el plazo temporal de las autorizaciones a las fases de desescalada de la crisis sanitaria ocasionada por el COVID-19, y a la duración del estado de alarma. El día 21 de junio de 2020 terminó el estado de alarma decretado por primera vez por el Decreto 463/2020. En consecuencia, terminó el periodo de vigencia de las autorizaciones de ampliación temporal de las terrazas.

Por otro lado, se ha publicado en el BOPV nº120, la Orden de 18 de junio de 2020, de la Consejera de Salud, sobre medidas de prevención necesarias para hacer frente a la crisis sanitaria ocasionada por el COVID-19, una vez superada la fase 3 del Plan para la Transición hacia una Nueva Normalidad. El objeto de la Orden es establecer las medidas de prevención necesarias para la gestión de la situación de crisis sanitaria ocasionada por la COVID-19 hasta su definitiva finalización.

En el Anexo de dicha Orden se recogen las medidas de prevención. En cuanto a las medidas de prevención de los establecimientos de hostelería, se elimina el límite de aforo, siempre que se asegure una distancia física de 1,5 metros entre las mesas, o en su caso, agrupaciones de mesas.

Mediante Orden de 15 de julio de 2020, de la Consejera de Salud, se modifica el anexo de la Orden de 18 de junio de 2020, de la Consejera de Salud, sobre medidas de prevención necesarias para hacer frente a la crisis sanitaria ocasionada por el COVID-19, una vez superada la fase 3 del Plan para la Transición hacia una Nueva Normalidad. En cuanto a los establecimientos hosteleros, se añade a la medida establecida el condicionante de que la ocupación máxima será de diez personas por mesas o agrupación de mesas.

Las medidas de prevención establecidas en la Orden suponen el mantenimiento de la situación de excepción ocasionada por el COVID-19. En concreto, esta medida afecta



kopuruari eragiten dio; aurreko urteekin alderatuta, mahaian % 60 eta % 65 artean instalatu ahal izango dira.

Gauzak horrela, salbuespenezko eta aldi baterako araubide juridiko bat ezartzea komeni da. Horretarako, maiatzaren 11ko 2020/0900 Dekretuaren bidez ezarri zen araubidea moldatu behar dugu, Osasun sailburuaren azken aginduetara egokitu ahal izateko (2020ko ekainaren 18ko Agindua eta 2020ko uztailaren 15eko Agindua), eta, horrez gain, udalak emandako lizentzietan aurretiaz aitortutako eskubideekin bateragarri egiteko ere bai.

Ondorioz, egokia da:

Irizpide tekniko orokor batzuk onartzea, indarrean dagoen udal ordenantza osatzeko eta aire zabaleko terrazen azalera handitzeko baimenen salbuespenezko araubide juridikoa finkatzeko, indarraldi mugatukoa. Araubide horretan barneratuko dira Osasun sailburuaren 2020ko uztailaren 15eko Aginduaren eranskineko 3.8.artikuluaren zerrendatutako baldintzak, pertsonen segurtasuna eta irisgarritasun-printzipioa betetzeko ezarriak izan direnak.

Terrazarekin okupatu ahalko den eremua handitzeko baimenak aldi baterako indarraldi mugatua izango du, eta hori irizpide teknikoetan eta terraza handitzeko baimenean egongo da jasota.

Gainera, terrazak handitzeko baimenak ezeztatu edo aldatu egin ahalko dira, osasun krisialdian administrazio eskudunek onartu ahalko dituzten kontrol eta prebentziorako neurri osagarrien bidez.

Durango, guztira, ostalaritzako 96 terraza eta mahaitxo daude baimenduta, eta hainbat okupazio mota daude: espaloien gainekoak, aparkaleku-zerrendetakoak, plazak, oinezkoen guneak, oinezkoek eta ibilgailuek partekatutako kaleak eta balio berezietako espazioak. Gainera, terraza batzuk gune

al número de mesas que se pueden instalar en las terrazas, pudiéndose instalar entre un 60% y un 65% respecto de años anteriores.

Es por ello que se estima conveniente establecer un régimen jurídico excepcional y temporal, modificando el régimen establecido mediante Decreto nº2020/0900, de 11 de mayo para adaptarlo a las medidas de prevención establecidas en la Orden de 18 de junio de 2020, y posterior Orden de 15 de julio de 2020, ambas de la Consejera de Salud, e intentar hacerlo compatible con los derechos preexistentes reconocidos en las autorizaciones concedidas por el Ayuntamiento.


En consecuencia, procede:

Aprobar unos criterios técnicos generales que permitan complementar la ordenanza municipal en vigor fijando el régimen jurídico excepcional y de vigencia limitada de los permisos de ampliación de la superficie destinada a la terraza al aire libre, con los condicionantes enumerados en el artículo 3.8 del Anexo de la Orden de 15 de julio de 2020, de la Consejera de Salud.

El régimen de permiso de ampliación de la superficie a ocupar tendrá una vigencia temporal limitada, que se reflejará en los criterios técnicos y en el permiso de ampliación.

Además, los permisos de ampliación se podrán revocar o modificar en base a las medidas adicionales de control y prevención que puedan aprobar las administraciones competentes durante la crisis sanitaria.

En Durango contamos con un total de 96 terrazas y veladores de hostelería autorizadas, con diferentes tipos de ocupación: ocupaciones sobre aceras, ocupando banda de aparcamiento, plazas, zona peatonales o de coexistencia, o espacios de valor singular. Además algunas terrazas ocupan espacios privados.



pribatuetan daude.

Udal ordenantzan jasota dauden fatxadetik bereizketak eta oinezkoen eta ibilgailuen ibilbideak libratzeko arauak nahikoak dira terrazetan irisgarritasun-baldintzak eta oinezkoen urruntze sozialerako baldintzak betetzen direla bermatzeko.

Lurzoru publikoan dauden ostalaritzako terrazen okupazioa handitzea eskatzen bada terrazaren lizentzia baimendutako mahai kopuru handiena jarri ahal izateko, kasuan-kasuan aztertu beharko da zelan egin daitekeen, oinezkoen irisgarritasun-eta urruntze-baldintzak betetzen direla bermatzeko.

Ildo horretatik, oinezkoentzako espazioak ahal bezain beste handitzeko, ahal denean terrazek aparkaleku-zerrendak okupatzea lehenetsiko da, espaloiak gehiago okupatu beharrean.

Bestalde, aterpe egonkorra duten terrazek baldintza egokiak dituzte aire zabaleko terrazatzat hartzeko, alboetako babes-elementuek gehienez ere 1,5 metroko altuera badute. Hala ere, terraza estaltzat hartutako kasuren bat egon daiteke, hormekiko edo paramentuekiko duten kokapenagatik terraza batzuk ezin izango baitira aire zabaleko terrazatzat hartu.

Hortaz, COVID-19ak eragindako salbuespeneko osasun-krisialdian, eta baimendutako terrazetan ahalik eta mahai gehien jartzeko, betiere bermatuta betetzen direla eragin-esparruan dauden oinezkoentzako ibilbideetan irisgarritasun-eta urruntze-baldintzak.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, Alkatetzak du lizentziak emateko eskumena. Eskumen hori baliatuz,

EBATZI DUT

El cumplimiento de las separaciones a fachadas y libramiento de itinerarios peatonales y de vehículos establecidos en la ordenanza municipal, son suficientes para garantizar el cumplimiento de las condiciones de accesibilidad y de distanciamiento social del peatón, en las terrazas existentes.

Cuando una terraza de hostelería solicite incrementar la ocupación de superficie pública para posibilitar la instalación del mayor número de mesas autorizadas en la licencia de la terraza, deberá estudiarse caso a caso, de qué manera puede llevarse a cabo, garantizando el cumplimiento de las condiciones de accesibilidad y de distanciamiento social del peatón.


A tal efecto, para incrementar en lo posible los espacios peatonales, se priorizará la ocupación de banda de aparcamiento frente a mayores ocupaciones en acera, cuando ello sea posible.

Por otro lado, las terrazas con cubierta estable, cumplen adecuadas condiciones para ser consideradas como terrazas al aire libre si sus protecciones laterales se mantienen en el máximo de 1,5 metros de altura. Sin embargo, puede darse la situación de alguna terraza cubierta, que por su situación respecto de paredes o paramentos no podrá considerarse terraza al aire libre.

Ante esta situación excepcional de crisis sanitaria ocasionada por la COVID-19, y con el fin de facilitar la instalación del máximo de mesas que se instalan en las terrazas autorizadas, y siempre garantizando el cumplimiento de las condiciones de accesibilidad y de distanciamiento social en los itinerarios peatonales afectados.

Considerando que en virtud de lo dispuesto por el artículo 21.1. de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, se atribuye a la Alcaldía la competencia para otorgar licencias.

HE RESUELTO



Lehenengoa. Onartzea Durangoko ostalaritza- eta jatetxe-establezimenduetako aire zabaleko terrazetako lizentzien araubide juridiko ezohizko eta iragankorra. BIDE PUBLIKOAN TERRAZAK ETA MAHAITXOAK INSTALATZEA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZAren osagarria izango da (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 2018ko otsailaren 9a).


Araubide honen bidez terrazak jartzeko malgutasun-irizpide eta -baldintzak ezartzen dira, COVID-19ak eragindako osasun krisialdiari aurre egiteko prebentzio neurriek irauten duten epealdirako. Neurri horiek Osasun sailburuaren 2020ko ekainaren 18ko Aginduan eta 2020ko uztailaren 15eko Aginduan daude jasota, eta ondoren etor litekeen ordezkapen araudi batekin ere luzatu ahalko da epealdia. Hauexek dira Durangoko terrazentzako malgutasun-irizpideak eta baldintzak:

- **Gaur egun lizentzia duten aire zabaleko terrazetan, mahaiei artean 1,5 metroko tartea egotea bermatu beharko da.** Horrez gain, bete egin beharko dira aipatutako aginduak ezarritako ostalaritza establezimendu eta zerbitzuetarako bestelako neurriak.
- Udalak terrazen okupazio-azalera handitzeko baimena eman ahal izango du. Udalaren baimen berezi horri esker, luzeran zein zabaleran handitu ahalko dira terrazak, eta fatxadetik, oinezkoen bideetik eta ibilgailuekiko distantziak errespetatu beharko dira. Inolaz ere ezingo da 2020ko martxoan dekretatutako alarma egoera aurretik izandako lizentzian baimendutakoa baino mahai gehiago izan terrazan. Epealdi honetan, ezingo da 16 mahai baino gehiago jarri udal ordenantzak balio berezikotzat

Primero.- Aprobare el Régimen jurídico excepcional y temporal de las autorizaciones de terrazas al aire libre de los establecimientos de hostelería y restauración del municipio de Durango, complementario a la ORDENANZA MUNICIPAL REGULADORA DE LA INSTALACION DE TERRAZAS Y VELADORES EN LA VIA PUBLICA (Boletín Oficial de Bizkaia de 9 de febrero de 2018).

Este régimen contiene los criterios y condiciones de flexibilidad para la instalación de terrazas durante el periodo de vigencia de las medidas de prevención necesarias para hacer frente a la crisis sanitaria ocasionada por el COVID-19, establecidas en la Orden de 18 de junio de 2020, y posterior Orden de 15 de julio de 2020, ambas de la Consejera de Salud, o normativa que lo sustituya, y que se señalan a continuación:

- **Las terrazas al aire libre autorizadas actualmente, deberán asegurar una distancia física de 1,5 metros entre las mesas.** Debiendo cumplir además el resto de medidas de prevención de los establecimientos y servicios de hostelería, establecidas en la citada Orden.
- Podrá autorizarse una mayor superficie de ocupación, tanto a lo largo como a lo ancho, respetando las condiciones mínimas de separación a fachadas e itinerarios peatonales o de vehículos señalados en la ordenanza municipal sobre terrazas y veladores de hostelería. Sin que **en ningún caso se puedan instalar en la terraza más mesas que las autorizadas en la licencia anterior a la entrada en vigor del estado de alarma decretado en marzo de 2020.** Durante este periodo, en ningún caso podrán instalarse más de 16 mesas de terraza en los espacios de valor singular definidos en




hartutako guneetan; bestelako espazioetan, gehienez 22 mahai jarri ahaliko dira. Dena dela, baimendutako azalera handitzeak ahalik eta eragin txikiena izango du plaza publikoetan, udal teknikarien irizpidea aintzat hartuta, nahiz eta kasu batzuetan mugakide diren lokalen aurretiazko baimena eskatu beharra egongo den.


- 2020ko martxoan dekretatutako alarma egoera indarrean jarri zen momentuan terraza edo mahaitxoak jartzeko lizentziarik izan ez zuten establezimenduek bete egin beharko dituzte BIDE PUBLIKOAN TERRAZAK ETA MAHAITXOAK INSTALATZEA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZAko baldintza guztiak (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 2018ko otsailaren 9a), eta baita COVID-19an eragindako osasun krisialdiari aurre egiteko indarrean dauden prebentzio neurriak ere.
- Terrazen azalera handitzeko baimena emateko, nahitaez bermatu beharko dira oinezkoen urruntze soziala eta irisgarritasun-baldintzak; beraz, kasu bakoitzeko baldintza eta muga espazialak hartuko dira kontuan. Baldintza egokiak betetzen ez badira, eskatutako azalera handitzea ukatu ahal izango da.
- Lursail pribatuetan dauden terrazei dagokienez, lur horien jabeen berariazko baimena lortu beharko da terrazen azalera eta mahai eta aulkien okupazioa handitzeko, aipatutako irizpideak betez. Azalera handiagoa okupatzearen eraginez mahai eta aulkiek lurzoru publikoa okupatu behar badute – eta lehen ez zuten okupatzen-dagozkien tasak ordaindu beharko dira.

la Ordenanza Municipal, ni más de 22 mesas para cualquier otro tipo de espacio. En cualquier caso, la ampliación de la ocupación del espacio que se autorice se hará con la menor afección posible en plazas públicas, de acuerdo con el criterio de los técnicos municipales, aunque ello implique la necesidad de obtener una autorización previa de locales colindantes en su caso.

- Aquellos establecimientos que no dispusieran de licencia para la instalación de terraza y/o velador a la entrada en vigor del estado de alarma decretado en marzo de 2020, deberán cumplir con todas las condiciones de la ORDENANZA MUNICIPAL REGULADORA DE LA INSTALACION DE TERRAZAS Y VELADORES EN LA VIA PUBLICA (Boletín Oficial de Bizkaia de 9 de febrero de 2018), y además, aquellas medidas de prevención necesarias para hacer frente a la crisis sanitaria ocasionada por el COVID-19 vigentes.
- Solo podrá autorizarse dicha ampliación, con garantías de las condiciones de accesibilidad y de distanciamiento social de peatones, por lo que se tendrán en cuenta las condiciones y limitaciones espaciales de cada caso. Pudiendo llegar a denegarse la ampliación solicitada si no se cumplen las condiciones adecuadas.
- Las terrazas situadas sobre terrenos privados, deberán obtener autorización expresa de la propiedad del suelo para la ampliación de la mayor ocupación con las mesas y sillas, de acuerdo con los criterios señalados. Si debido a la mayor ocupación las mesas y sillas tuvieran que ocupar suelo público, cuando antes no lo hacían, deberá abonar las tasas correspondientes.



- Espaloietan dauden terrazei dagokienez, okupazioa, ahal dela, aparkaleku-zerrendarantz zabalduko da, eta terraza osoa ere aldatu ahal izango da lekuz, espaloian oinezkoentzako ibilbidea zabaltzeko eta urruntze soziala hobetzeko. Eremu publikoan aparkatzeko leku falta egonez gero, ukatu egin ahalko da okupazio handiagoa egiteko baimena.
- Aparkaleku-zerrendak okupatuz gero, gunea balizatzeko eta behin-behineko babeserako elementuak jarri beharko dira, aparkaleku-linearen barrualdea 30 cm bereizita.
- Garajeetako pasabideak libre geratu beharko dira; terrazaren azalera zabaltzeko eremuan halako pasabiderik badago, okupazio-muga izango dira.
- Terrazak handitzerakoan, zabalik dagoen merkataritza-lokal baten fatxadatik 4 metro baino gutxiagora okupatu beharra ikusiz gero, jarduera horren titularraren berariazko baimena lortu beharko da.
- Aldi baterako okupazio handiagoa duten terraza horietan, mahai eta aulkiez gain, eguzkitakoak soilik onartuko dira altzari gisa, eta ordenantzan eta terrazaren baimenean ezarritakoaren arabera jarri eta kendu beharko dira. Aparkatzeko zerrenden gainean jartzen diren eguzkitakoak aparkatzeko lerroaren barnean gutxienez 30 cm-ko tartea utzita jarriko dira.
- Azalera handiagoa okupatzeko baimena plano batekin emango da, eta, bertan, modu grafikoan
- La ampliación de la ocupación de terrazas situadas en aceras, se realizará preferentemente hacia la banda de aparcamiento, cuando ello sea posible, incluso trasladándose toda la terraza, para ampliar el itinerario peatonal de la acera y mejorar el distanciamiento social. En el caso de que hubiera déficit de aparcamiento en dicha vía pública, podrá denegarse la autorización de mayor ocupación.
- Cuando se ocupe banda de aparcamiento, deberá instalar elementos de balizamiento y protección provisional, separados 30 cm al interior de la línea de aparcamiento.
- Los pasos de vado a garajes harán de límite de la ocupación si la terraza se extendiera hacia algún paso de vado de la zona.
- Si la ocupación con mesas debiera extenderse frente a otro local comercial abierto, y se situara a una distancia inferior de 4 metros desde la línea de fachada, deberá obtener la autorización expresa del titular de dicha actividad.
- Además de las mesas y sillas, solo se permitirán sombrillas como mobiliario en dicho espacio de mayor ocupación temporal, que deberán ser colocadas y retiradas de acuerdo con lo establecido en la ordenanza y en la propia autorización de la terraza. Las sombrillas que se coloquen sobre banda de aparcamiento deberán colocarse de manera que su borde exterior quede, al menos, 30 cm al interior de la línea de aparcamiento.
- La autorización de mayor ocupación acompañará un plano que especifique de manera gráfica la ocupación temporal y colocación de las mesas, de acuerdo con las condiciones aquí



zehaztuko da aldi baterako okupazio horretan mahaiak zelan egongo diren kokatuta, testu honetan azaldutako baldintzak betez. Hedatze horretarako aukera bat baino gehiago egonez gero, interes publikoari kalte txikiena egingo diona aukeratuko da.

- Azalera handiagoa okupatzeko baimena, aplikatu beharreko Ordenantza Fiskalek ezarritako zenbatekoan eta forman, dagokion tasarekin lotuta dago. Terrazak hedatzeko baimenari dagokion tasa baimen honek irauten duen epealdiari aplikatuko zaio.

Bigarrena.- Durangoko ostalaritza- eta jatetxe- establezimenduetako aire zabaleko terrazetako lizentzien araubide juridiko ezohizko eta iragankor honen indarraldian, BIDE PUBLIKOAN TERRAZAK ETA MAHAITXOAK INSTALATZEA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZAKo (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 2018ko otsailaren 9a) ondorengo artikulua etenda gelditzen dira:

- 7.8 artikulua
- 9.6 artikulua
- 14.9 artikulua

Ondorioz, Ordenantzaren testutik ondorengo edukia ordezkatzeko litzateke:

7. artikulua. Muga orokorrak

~~8. Ordenantza honetan espazio mota bakoitzerako ezarritako muga jakinak errespetatuz, terrazek eta mahaitxoek, gehienez, 12,00 x 4,80 metroko azalera hartu ahal izango dute terraza jartzeko emandako lizentzia bakoitzeko. Espazio libreetan eta plazetan (balio berezia dutenetan baita) azalera % 50 handitu daiteke, gehienez 12,00 x 7,20 metrora iritsi arte, baldin eta baimen hori emateak espazio horretako beste ohiko erabilera batzuk mugatzen ez baditu behintzat.~~

señaladas. En el caso de que hubiera diferentes opciones para la ampliación, se determinará la menor perjudicial para el interés público.

- La autorización de mayor ocupación está sujeta a la tasa correspondiente en la cuantía y forma establecidas por la Ordenanzas Fiscales de aplicación. La tasa devengada por el permiso de ampliación se aplicará al periodo al que se extienda dicho permiso.

Segundo.- Durante el periodo de vigencia del presente Régimen jurídico excepcional y temporal de las autorizaciones de terrazas al aire libre de los establecimientos de hostelería y restauración del municipio de Durango, se suspenden los siguientes artículos de la ORDENANZA MUNICIPAL REGULADORA DE LA INSTALACION DE TERRAZAS Y VELADORES EN LA VIA PUBLICA (Boletín Oficial de Bizkaia de 9 de febrero de 2018):


- Artículo 7.8
- Artículo 9.6
- Artículo 14.9

En consecuencia, se desplaza el siguiente contenido del texto de la Ordenanza:

Artículo 7. Limitaciones Generales

~~8. Sin perjuicio de las limitaciones particulares para cada tipo de espacio establecido en la presente ordenanza, se establece una limitación máxima de ocupación de 12,00 metros x 4,80 metros por licencia de instalación de terraza. La superficie puede ampliarse un 50%, hasta un máximo de 12,00 metros x 7,20 metros, en espacios libres y plazas (incluidos los espacios de valor singular), cuando su autorización no implique una limitación a otros usos que se dan habitualmente en el espacio concreto.~~

Artículo 9. Normas y características del



9. artikulua. Altzarien arauak eta ezaugarriak

~~6. Bide publikoa hartzeagatik dagokion tasa ordaintzeko, Ordenantza honek baimendutako kasuetan terrazatik kanpo dagoen upel bakoitzak metro koadroko bat (1) azalera hartzen duela zenbatuko da.~~

~~Mahaitxoan modulua mahai batek eta aurrez aurre jarritako bi aulki parek osatzen dute. Aldea edo diametroa 0,80 metrotik beherakoa duten mahai karratu edo borobilen kasuan, mahaitxo bakoitzak 1,80 x 1,80 metroko azalera hartzen duela zenbatuko da. Mahaiak 0,80 metrokoa baino handiagoa den aldea edo diametroa badu, azalera hori proportzionalki handituko da.~~

~~Erabilgarri dagoen espazioaren neurriagatik lehendik adierazitako mahaitxoak sartzen ez badira, mahai batek eta bi aulkik osatutako mahaitxoak instalatu ahal izango dira eta okupazio teorikoa 0,80 x 1,80 metro koadroko laukizuzen bat izango da.~~

~~Mahaitxo-ilara bat baino gehiago jartzeko baimena ematen denean, gehien komeni den moduan jarri ahal izango dira, betiere, mahai eta aulki guztietara erraz iristeko moduan. Gehienez baimendutako mahai eta aulki kopurua jakiteko, zatitu hartutako azalera ondorengo moduluekin: 2,5 metro koadro mahai bakoitzeko eta 0,8 metro koadro aulki bakoitzeko. Espazioa perimetroa babesteko instalazioarekin duten terrazek ez dute muga hori izango.~~

14. artikulua. Ibilgailuen zirkulazioa dagoen kaleetako espaloietan instalazioek hartuko duten tokia

9. (...) Horrelakoetan, ezingo dira ilaran aparkatzeko bi toki baino gehiago hartu, ezta baterian aparkatzeko lau toki baino gehiago ere

mobiliario

~~6. A efectos del pago de la correspondiente tasa por ocupación de vía pública, cada barril no situado en espacio de terraza, en los casos permitidos por la presente ordenanza, computará por una superficie de un (1) metro cuadrado de ocupación.~~

~~El módulo tipo de velador lo constituye una mesa y cuatro sillas enfrentadas dos a dos. Para mesas cuadradas o redondas de lado o diámetro inferior a 0.80 metros se considerará una superficie de ocupación teórica por cada velador de 1.80 x 1.80 metros. Si la mesa tuviese lado o diámetro superior a 0.80 metros, la superficie se aumentará proporcionalmente al exceso.~~


~~Cuando por las dimensiones del espacio disponible no cupiesen los veladores indicados anteriormente, podrán instalarse veladores con una mesa y dos sillas cuya superficie de ocupación teórica será un rectángulo de 0.80 x 1.80 metros cuadrados.~~

~~Cuando se permita la implantación de más de una fila de veladores, podrán disponerse como mejor convengan siempre que se permita el fácil acceso a todas las mesas y sillas. El número de mesas y sillas máximo será el que resulte de dividir la superficie de ocupación entre los siguientes módulos: 2,5 metros cuadrados por cada mesa y 0.8 metros cuadrados por cada silla. No están sujetas a esta limitación las terrazas cuyo espacio queda delimitado por protecciones perimetrales.~~

Artículo 14. Ocupación de las instalaciones en aceras de calles con circulación rodada

9. (...) En este caso, no podrán ocuparse más de dos plazas de aparcamiento en línea, ni más de cuatro plazas en batería.

Tercero.- El Régimen jurídico excepcional y temporal de las autorizaciones de terrazas al



Hirugarrena.- Durangoko ostalaritza- eta jatetxe- establezimenduetako aire zabaleko terrazetako lizentzien araubide juridiko ezohizko eta iragankorra indarrean egongo da COVID-19ak eragindako osasun krisiari aurre egiteko prebentzio neurriak indarrean dauden artean, gehienez ere, 2020ko abenduaren 31 arte. Neurri horiek Osasun sailburuaren 2020ko ekainaren 18ko Aginduan eta 2020ko uztailaren 15eko Aginduan jasotakoak edo ordezkaturiko duen beste araudi batean jasotakoak izango dira.

Osasun krisiaren baitan, eskumena duten administrazioek kontrolerako eta prebentziorako bestelako neurri osagarriak hartu ahalko dituzte, eta horien bidez, azalera handitzeko baimena ezeztatu edo aldatu egin ahalko da.

Laugarrena.- Erabaki hau hurrengo plenoko gai zerrendan sartuko da, Udalbatzak berretsi dezan.

Bosgarrena.- Dekretu honen berri ematea interesdunei eta herritarrei, horretarako egokiak diren baliabideak erabiliz, erabakiak ahal den hedadura handiena izan dezan.

Alkate andreak agindu eta izenpetzen du, eta nik, Udaleko idazkari nagusia naizen honek, egiaztatu egiten dut. .

Durango, 22 de julio de 2020

Elektronikoki izenpeturiko agiria
Documento firmado electrónicamente

aire libre de los establecimientos de hostelería y restauración del municipio de Durango estará vigente mientras persistan las medidas de prevención necesarias para hacer frente a la crisis sanitaria ocasionada por el COVID-19, establecidas en la Orden de 18 de junio de 2020, y posterior Orden de 15 de julio de 2020, ambas de la Consejera de Salud, o normativa que los sustituya. En todo caso, perderá su vigencia con fecha 31 de diciembre de 2020.

La autorización de mayor ocupación se podrá revocar o modificar en base a las medidas adicionales de control y prevención que puedan aprobar las administraciones competentes durante la crisis sanitaria.

Cuarto.- La presente Resolución deberá ser convalidada por el Pleno, por ello, se incluirá en el orden del día de la siguiente sesión ordinaria.

Quinto.- Comunicar el presente Decreto a los interesados y a la ciudadanía, utilizando los medios adecuados para que la decisión tenga el mayor alcance posible.

Lo manda y firma la Alcaldesa-Presidenta, de todo lo cual yo, Secretaria General de la Corporación, doy fe.

Durango, 2020ko uztailaren 22a

Elektronikoki izenpeturiko agiria
Documento firmado electrónicamente